

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresaren funtzionamendua bermatzen duten lan garrantzitsuak dira. Jarduera horiei esker **bezeroei balioa sortu** eta **eman** diezaiokegu. Oso garrantzitsuak dira, gure produktuak edo zerbitzuak sortzeko, bezeroak asebetetzeko eta lehiakideengandik bereizteko.

Full Scanner-en, gure funtsezko jarduerak dira Fast Time Scanner modu eraginkorrean funtzionatzeko aukera ematen dutenak. Gure arreta jarri dugu ahoko azterketa azkarra egitean, datuak odontograman automatikoki betetzea, txantxarrak detektatzea eta hortzoiaren anomaliak ikustea. Gainera, autismoa duten pertsonak gure klinikara etorriko dira, patologia azkar diagnostikatu ahalko dizkiegulako, gainera, scanner-a ez du zaratarik egingo nahi ez ezean. Jarduera hauek ezinbestekoak dira, pazienteei **kalitatezko zerbitzua** eskaintzeko eta gure produktua **lehiakideengandik bereizteko**.

Gure enpresaren, Full Scanner-en, funtsezko jarduerak bermatzen dute Fast Time Scanner **modu egokian funtzionatzen** duela eta pazienteei balioa ematen diotela.

Publizitatea gakoa da, jarduera horiek nola egiten diren erakusteko: ahoko miaketak denbora gutxitan, odontograma automatikoki bete eta autismoa duten pertsonak tratatu ahal izango dugu modu eroso eta azkarragoan. Horri esker, **erabiltzaileek** gure produktuak dituen benetako **abantailak ezagutzen** dituzte eta lehiakideetatik bereizten gara.

Hona hemen, zer erabiliko edo zer egingo dugu gure produktuan ezaguna izateko:

- **Publizitatea online**

- Sare sozialak→ Instagram, TikTok, Facebook edo LinkedIn, scanner-a nola funtzionatzen duen erakusten duten bideo laburrekin.
- Webgunea edo blog-a→ Produktuaren abantailak azaltzea.
- Publizitate ordainpekoa→ Sare sozialetako iragarkiak kliniketara eta odontologoetara heltzeko.

- **Publizitate zuzena eta profesionala**

- Odontologiako hitzaldiak eta kongresua→ Produktua sektoreko ekitaldietan aurkeztea.
- Demostrazioak kliniketan→ Odontologoei Fast Time Scanner probatzeko gonbidatzea.
- Autismo elkarteekin elkarlana→ Nola laguntzen duen erakustea pertsona bereziekin tratatzeko.

G.U.M enpresarekin kolaborazio bat egingo dugu. Scanner-aren heldulekuan G.U.M-en pegatina bat jarriko dugu. Hau egiterakoan, publikoa gure scanner-a asoziatuko du **kalitate onarekin**. G.U.M, kalitate ona eta ezagutza handia duen enpresa bat delako.

- **Publizitate bisuala eta sortzailea**

- Bideo edo animazioak→ Scanner-a nola funtzionatzen duen modu argi eta azkarrean erakustea.
- Infografiak→ Abantailak azaltzea, adibidez: denbora aurreztu, txantxarrak detektatu eta autismoa duten pazienteei tratatzeko erraztasuna.
- Kartelak edo liburuxkak→ Kliniketako edo odontologiako unibertsitateetan banatzea.

- **Publizitatea gomendio bidez**

- Profesionalen iritzia→ Produktua erabili duten dentisten gomendioak.
- Pazienten iritzia→ Bereziki autismoa duten haurren gurasoekiko esperientzia positiboa, tratamendua erraza dela erakutsiz.
- Erreferentzia-sareak→ Klinika batek beste bati scanner-a erabiltzea gomendatzea.